

ETA, zeren izena ote?

ETAk borroka armatua bertan behera utzi du. Karia horretara hedabide gehienek gaitz baten amaiera aipu izan dute, erakunde armatuko biktimen kopurua oroitzuz. Besterik ez balitz bezala. Dimentsio bakarreko fenomeno izan balitz bezala. Alta, ETA ezin da eragin dituen biktimekin laburbildu. ETA ez da soilik borroka molde bat edo estrategia bat izan, ez da bakarrik erakunde bat izan. Bost hamarkadetan zehar askoz ere gehiago izan da. Batzuentzat gauza bat eta bere kontrakoa beste batzuentzat, garai bateko zein besteko ondorioak arrunt desberdin edo kontrajarriak izanik.

Bizipen pertsonalen aldetik begiratzen badiogu, ETA dudarik gabe sufrimendu latzaren iturria izan da, batzuen eguneroko bizian mehatxu jasangaitza eta beldurra sortzen zuen kaputxadunen banda krudela ez besterik. Baina alderantziz, euskal herritar frankorentzat lehen eta gaur arte, erabateko engaiamendu altruista bideratzeko abentura arriskutsua izan da, usu dramatiko. Batzuen herra eta beskeen ohore eta duintasuna. Bizia emateko arrazoa bezainbat bizia kentzeko bai-mena. Espainiari edota “demokrazia gazteari” eraso justifikatu ezina. Jasandako umilazio eta zapalkuntzari gogor erantzuteko arma legítimo.

ETA arazo morala eta etikoa izan da askotan eta jende askorentzat. Gisa berean, hainbat torturazailer, txibato eta militar faxisten garbitzeaz pozteko aukera ere. Europa osoan paralizaturik gertatu zen zentral nuklear bakarra da ETAren ondorioetarik bat. Politika ikerlari askorentzat iraganetik iraun zuen konpondu gabeko anakronismoa zen borroka armatua. Beste batzuek aztertu izan dute euskal abertzaletasun modernoa piztu eta hedatzeko fenomeno sozial zabala, atxikimendu politiko eta identifikazio afektibo-kulturala sortu zuen erresistentzia sinboloa eta Espainiako Estatu xoko guzietatik etorri immigrante andana frankismoaren beltzean abertzale bilakatzeko mekanismo azkarra. Abertzale borrokarako gogoia eta kuraia pizteko eta elikatzeko jarduera izan da ETAArena eta ez soilik indarkeria erabiliz baizik eta beste arlo eta molde anitzetan ere: “Denek eman behar dugu zerbaite, bakar batzuek ez dezaten dena eman...” esaldiaren ildotik. Baina abertzaletasuna zabaldu zuenak, beste garai batean biktimizazio fenomeno alderantziz funtzionatzen hasi zelarik, nazionalismo espainiarrari hauspo lana ere egin zion. Txiki eta Otaegiren martirioak euskal jendartearen inpaktatu zuen ikaragarri baina hogeita bi urte berantago M. Angel Blancorenak beste hainbeste eragin zuen. Garai batean euskaldunen nazio askapen borroka nazioartean ezagutarazteko tresna izan zen ETA, ezkerreko mugimenduen artean sostengu zabalak bilduz. Espainiako Estatuak aspaldidanik Europari begira zernahi aldrebeskeria (tortura, ilegalizazioak, auziak) gordetzeko aitzakia gisa ere erabili izan du.

Batzuek estrategia baten zerbitzuko tresna politiko zorrotza eta eraginkorra zuten ETA, trantsiziotik hona, egoera normalizatzeko oztopo nagusia eta beraz burujabetza eta lurraldetasun arazo politikoak gori-gorian atxikitze. Parean, funtsezko arazo politikoak saihesteko estakurua zuten besteek. Alderdi batzuentzat hauteskundeetan lehitzeko gai gogokoena zen. Beste batzuentzat, ilegalizatuak eta hauteskunde eremutik erabat kanpo gelditzeko kausa. Ahantzi gabe, ETA konde-natzearekin batera Madrili begira zeharkako xantaia bezala erabiltzen zutenak.

Hori guztia eta beste gauza askoren izena da ETA. Gauza itsusiak eta ederrak, humanoak eta politikoak, anekdotikoak nahiz historikoak. Euskal Herriko jende gehienentzat “betidanik” bazen ETA. Orain desagertzera doa eta hutsune bat nabaritu da. Nork daki zer izanen den ETArrik gabeko Euskal Herria? Irekitzen zaigun kapitulua esperantzagarri bezain konplexua dugu, borroka eta konfrontazio demokratikoz betea hain segurua baina agian, gehiengoaren desioa baita behintzat, odol eta malkorik gabekoa.



GAIZKA IROZ

Jakes Bortairu

» Txiki eta Otaegiren martirioak euskal jendartearen inpaktatu zuen ikaragarri baina hogeita bi urte geroago M. Angel Blancorenak beste hainbeste eragin zuen

